BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2199

AGINDUA, 2013ko martxoaren 15ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Baque-Baque Iraskundea» fundazioaren estatutuen aldaketa onartzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko urtarrilaren 15ean, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren Erregistroan, sarrera eman zaio Nieves Martín andreak (Martingale Solutions, S.L.) –«Fundación Baque-Baque Iraskundea» fundazioaren mandatari moduan– aurkeztutako eskabideari.

Eskabidearekin batera, bi kopia eskuetsi aurkeztu dira, hain zuzen ere, Fernando Etxabe Eletak –patronatuko idazkari den Cafés Baque, S.L. sozietatearen ordezkari moduan, eta fundazioaren izenean eta ordezkaritzan–, 2012ko abenduaren 14an, Durangoko notario Francisco Javier Díez Ortizen aurrean egiletsitako eskritura publikoarenak (protokolo-zenbakia: 1077).

Eskritura publikoari honako agiri hauek erantsi zaizkio:

Cafés Baque, S.L. pertsona bakarreko sozietateak –idazkari gisa, eta Fernando Etxabe Eletak ordezkatuta–, 2012ko irailaren 14an, Mañarian –lehendakariaren oniritziarekin– egindako ziurtagiria, 2012ko irailaren 14an egindako bilkurari dagokiona. Bilkura horretan, aho batez onartu zen, besteak beste, estatutuen 5. (helbidea), 10. eta 11. artikuluak aldatzea.

Eskrituran, aldatutako artikuluen idazketa berria jasotzen da, osorik.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena eman dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legearen 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak abenduaren 15ean Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 20/2012 Dekretuaren 6.1.r) artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 4.2 artikuluan aurreikusi babeslaritza-funzioetan jardunez, 2013ko urtarrilaren 31n, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez, Fundazioaren estatutuen aldaketa onartu egin da, betiere dekretu horretako 33.1 artikuluarekin bat etorriaz eta, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 31.1 artikuluan xedatutakoarekin.

Ikusirik aipatutako arauak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Fundación Baque-Baque Iraskundea» fundazioaren estatutuetako 5. (helbidea), 10. eta 11. artikuluen aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutuen aldaketa hori inskribatzeko agintzea, agindu honen datarekin, eskritura publikoan ezarritakoaren arabera. Eskrituran jasota dago zein diren aldatutako artikuluak. Eskritura hori Fernando Etxabe Eletak egiletsi zuen –patronatuko idazkari den Cafés Baque, S.L. sozietatearen ordezkari moduan, eta fundazioaren izenean eta ordezkaritzan–, 2012ko abenduaren 14an, Durangoko notario Francisco Javier Ortiz jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1077).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 15a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.